



Urte bukaeran Pako Larrañaga Espainiara eraman dezakete

ALEGIA ▶ Filipinetan biziarteko kartzela zigorra betetzen ari da; maiatzean egingo dute hitzarmena

ITXAROPENA ▶ Larrañaga eta sendia pozik egon arren, bere errugabetasuna berretsi dute ▶ 5

DANI GARCIA ▶ ENTRENATZAILEA



E. EZEIZA

«Nahiago dut azken helburu bat ez jartzea»

Hegoaldeko nesken entrenatzailea pozik dago taldearekin ▶ 2

VILLABONA ▶

Gallegok urrea lortu du Madrilén ▶ 7



Ekin diote Usabalen informatika topaketa erraldoiari

TOLOSA ▶ Atzo hasi zen Usabal kiroldegian Gipuzkoa Encounter informatikaren Gipuzkoa mailako lehen topaketa. Denera, 400 lagun inguru espero dituzte 3 egunetan zehar, gehie-

nak, %80 inguru, euskaldunak izango direlarik. Sabino San Vicente topaketako arduradunaren esanetan, «jai honekin, Tolosa informatikarien erreferentzia puntu da egunotan». I. T. ▶ 3

TOLOSALDEA ▶

Asteasu eta Zizurkilgo udalek bidegorria egitea hitzartu dute

Foru Aldundiarekin sinatu dute eta lanak ekainean hasiko dituzte ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

Diru bilketa, Gaixotasun mentala dutenen alde

Caritasek abiaraziko du kanpaina ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

N-1 errepideko zubian hamar zutabe berrituko dituzte

Foru Aldundiak Amenabar enpresaren esku utzi ditu lanak ▶ 6

TOLOSA ▶

EAJko zerrenda buruaren aurkezpena

Maiatzeko hauteskunderieei begira, datorren asteartean, hilak 17, 19:30ean, EAJko zerrenda burua aurkeztuko dute. Zerkausian egingo den aurkezpen ekitaldian izango da Markel Olano, Ahaldu Nagusirako hautagaia.

POLITIKA ▶

Sinatzeko ordu gehiago Tolosan eta Amezketan

Ezker abertzaleak hauteskunderietan parte hartzeko abiatu duen sinadura bilketaren baitan, ahalik eta sinadura gehien jasotzeko helburuz, gaur ere udaletxean sinadura eman ahal izango dute tolosarrek. Goizeko 10:00etatik 13:30era bitartean. Amezketan berriz, astelehenean 08:00etatik 18:00ak bitartean sinatu ahal izango da udaletxean.

TOLOSA ▶

Kazkabarraren afarirako sarrerak salgai

Kazkabarra taldearen 25. urteurrena dela eta, urte hauetan guztietan taldearekin harremana izan duten guzientzat afaria antolatu dute hilaren 21erako. Ferialekuan izango da hau, eta Itxaropena izeneko taldean nahiz ondorengo Kazkabarran ibilitako guztiak daude gonbidatuak. Interesatuak, txartelak Ikatz, Orbela eta Mescal tabernetan eskuratu ahal dituzte.

TOLOSA ▶

Ezkontzarako prestatzeko topaketak

Tolosa eta Ibarako pastoral barrutiak antolatuta ezkontzarako topaketak izango dira 20:00etatik aurrera, Santa Maria parrokian, hilaren 16, 17, 18 eta 23an.

DANI GARCIA ▶ HEGOALDEKO ENTRENATZAILEA



E. EZEIZA

«Azken helburu bat jartzea baino nahiago dut partidaz partida joatea»

Asteburu honetan Kanariar irletan jokatu behar zuten partida atzeratzea erabaki dute Hegoaldekoek

ESTI EZEIZA

Lehendaziko aldiz nesken talde bat entrenatzen dihardu Dani Garcia (Valladolid, Espainia, 1975). Ohorezko Mailan jokatzeko ari dira Hegoaldekoak, eta lehendabiziko itzulian oso ongi hasi ez baziren ere, orain indartsu dabilta eta sailkapeneko zazpigarren postuan dira.

Lehendabiziko aldiz ari zara nesken talde bat entrenatzen, zer moduzko esperientzia ari da izaten?

Egundoko esperientzia izan da. Ez da erraza, harremantant-eta desberdina da. Hala ere, honek zerbaitetarako balioko dit. Oso talde ona da, baina aldi berean bere gauzak ditu.

Zergatik atzeratu duzue asteburu honetako partida?

Palmaria joan behar genuen baina oso garestia ateratzen

zen Aste Santuak zirela eta, horregatik atzeratzea erabaki genuen, eta azkenik maiatzaren 12an jokatu dugu.

Zer moduz ikusten dituzu ordura arteko partidak?

Zazpi norgehiagoka geratzen zaizkigu maiatzaren 12ra arte. Zailenak hau eta Madrilgo talde baten aurkako izango dira. Jokalari onak, atzerrikoak, dituzten taldeak baitira.

Denboraldiaren hasieran zenituen, Hegoalde, etxean ondo moldatzen zen taldea zela, baina kanpoan ez hainbeste.

Lehen egunetan hori esaten banuen ere, lehendabiziko itzulian hobeto moldatu gara kanpoan jokatu eta. Bigarrenean berriz emaitza hobekien izan ditugu. Taldea seguru sentitzen da etxean jokatzeko, eta gauzak oso ongi doaz.

Zer moduz ikusten duzu orain taldea?

Nahiz eta astean gauzak ez oso ondo joan eta lesio asko egon, talde oso lehiakorra da partidetan. Emaitza txarrak izan baditugu ere, egoera gogor hauek gainditzen jakin izan dute.

Lehendabiziko itzulitik ona asko hobetu duzue; zerk ekarri du aldaketa hau?

Zenbait jokalaria mailaz igo dira. Gainera, lehen aipatu bezala, talde oso lehiakorra da partidetan. Modu oso irregularran hasi ginen, baja askorekin, eta orain berriz oso ongi dabilta.

Ezin izan duzue kopa jokatu.

Jokatzeko hiru puntutara gertatu gara. Errioxaren aurka galdu genuen urtarrilean. Hori dela eta, beste talde bat sartu zen gure ordean. Dena den, hau jokatu gabe geratzen, talde askok interesa galtzen dute, baina gure kasuan ez da hori gertatu.

Denboraldiaren amaierarako zein helburu dituzu?

Partidaz partida joan behar dugu eta ez dugu interesa galdu behar. Seigarren geratuko bagina ongi logeoko, bosgarren puntu askotara dago eta zaila daukagu horra iristeko. Dena den, helburu bat ipintzea baino nahiago dut partidaz partida joatea.

Hegoalderen entrenatzaile izaten jarraitzeko asmoa al duzu datorren denboraldian?

Esperientzia guztiak dira onak, eta hau ere bai. Baina ez dakit jarraituko ote dudun, ziurrenik ez, baina oraindik ez dugu horretaz hitz egin.

GIZARTEA ▶

Gaixotasun mentala dutenentzako diru bilketa

E. EZEIZA

Donostiako Gotzaindegia-aren, Esku Elkartuak erakundaren eta Gipuzkoako Caritas-ek deituta, gaixotasun mentala duten gaixoei languntzeko diru bilketa egingo dute bihar.

Luzaturiko datuen arabera, Gipuzkoan, gaixotasun mentala, zehazki eskizofrenia eta psikosia pairatzen duten pertsonak 6.735 inguru dira, hau da, populazioaren %1a. Bestalde, Arartekoaren esanetan, EAEn erroldatutako eskualdeko herritarren %25ak bere eguneroko bizitzari eta ongizateari eragingo dion gaixotasun mental edo asaldura mental arinen bat izango du. Osasunaren Mundu Erakundeak dioena kontuan hartuta asko igoko dira asaldura mentalen kasuak.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
▶ **Orendain.** Medikua: 655595
▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
▶ San Esteban: 006800
▶ Gernikako arbola: 006900
▶ Amaroako dispen.: 672637
▶ Asunzio klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536
▶ **Gurutze Gorria:** 674888
▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.
▶ Renfe: 902 24 02 02
▶ Donostiako autobusa: 361740
▶ Tolosaldea bus: 650621
▶ Leitzarain autob.: 948 221015
▶ **Taxia:** 670420
▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.
▶ **Ertzaintza:** 538820
▶ **Tolosa-Udaltzaingoa:** 675858
▶ **Tolargi:** 650016
▶ **Iurramendi egotza:** 670325
▶ **Tolosa gasa:** 675320

Beti Alai
jatekoa

Garaian garaiko janariak
Arraikiatan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

GIPUZKOA ENCOUNTER TOPAKETA ▶



Festaren hasiera. Atzo goizean ireki zituen ateak Usabal kiroldegian Gipuzkoa Encounter topaketak. Argazkian ikusten den bezala, goizean pixkanaka-pixkanaka iritsi ziren parte-hartzaileak. Arratsalderako, ordenagailuek eta euren jabeek bete zuten gunea. I. T.



Lotarako gunea. Ordenagailuak jarrita dauden Usabalgo kantxaren ondoan egokitu dute lotarako kanpin-dendak edota zakuak jartzeko gunea. Atzo goizean lotan ari ziren parte-hartzaile batzuk, ostegunerako iritsiak baitziren Tolosara. I. TERRADILLOS



Buru-belarri. Abiadura handiko Internet konexioaz gozatu ahal dute erabiltzaileak. I. T.



Originaltasuna. Era guztietako ordenagailuak ikusi ahal dira, jabeek apainduak asko. I. T.



Jokoetan. Gaztetxoek gehien erakartzen dituen gunea da bideojokoena. Irudian, bi gazte jolasten. I. T.

SABINO SAN VICENTE ▶ GIPUZKOA ENCOUNTER-EKO ARDURADUNA

«Informatikarien erreferentzia puntu da Tolosa egunotan»

Informatikaren lehen topaketak aurreikuspenak bete ditu

IÑIGO TERRADILLOS

Atzo hasi zen Usabal kiroldegian Gipuzkoa Encounter informatika topaketa erraldoiari. Bertan, bihar arte, 400 lagun inguru bilduko dira, diseinu grafiko eta musika elektronikoa jorratuz eta bideojokoetara jokatzu, besteak beste. Sabino San Vicente (Urretxu, 1969) topaketako arduradunak kontatu dizkigu xehetasunak.

Gustura al zaudete jendearen harrerarekin?

Bai, oso gustura. Izan ere, gure

helburua 250 lagunetara iristea zen eta erraz gainditu dugu, 400 lagun espero baititugu.

Bigarren topaketa bat ere egongo da orduan?

Oraindik ezin da jakin hori, party-a amaitu eta gero balorazioa egingo dugu eta orduan ikusiko dugu, baina badirudi izan dugun arrakastarekin jarraipena izango duela.

Zel in da parte-hartzaleen batez besteko adina?

26 urtekoa da, espero baino handiagoa. Emakumeen por-

tzentaia, esaterako txikia da, baina Bilbon egiten den Euskal Encounter handian ikusi dugu hau urteik urtera handituz doala.

Zeren bila dator jendea, batez ere, topaketa hauetara?

Jokuetan lehiatzera dator jende gehiena, %42a, hain zuzen ere. Horretaz gain, ordea, musika elektronikoa, multimedia animazioa, 2D eta 3D arte digitala lantzerako eta horietaz gehiago ikastera ere badatoz. **Edozeinek har al dezake parte-hartze horrelako jabetan?**



I. TERRADILLOS

Bai. Informatikan interesa duen orori dago zuzendua, ez da zertan gaian jantzia izan behar.

Zer suposatzen du Tolosarentzat jai honek?

Tolosa 3 egunetan zehar erreferentzia puntu bihurtuko dela informatika arloko azken berrietasunak menderatzen dituzten artean. ◀

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Tabernaria behar da. Interesatuak deitu 615 789 006 zenbakira.

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar dugu Amasako tabernan.

Interesatuak deitu 943 69 12 10 zenbakira.

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da.

Interesatuak deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.

SALGAI

Trikitixa. Trikitixa berria saltzen dut. Interesatuak deitu 669 67 36 49 telefono zenbakira.

Etxebizitza. Tolosan, Araba etorbidean etxebizitza salgai. 100 m² erabilgarria. Dena kanpoaldera. 4 gela, egongela, sukaldaria eta 2 bainugela. 2 balkoira. Garajea aukeran. 665 703 374.

GIZARTEA ▶

Bordeleko Nazioarteko Azokara irteera

Bordeleko Nazioarteko Azokara irteera antolatu du Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak maiatzaren 12rako. Autobusak Larraulen, Alkizan, Zizurkil Goian eta Adunan egingo ditu geldialdiak. Izena emateko epea maiatzaren 2an amaitzen da.

ANOETA ▶

Herriko festak antolatzen bilerara deitu dute

Festa batzordeak, «festak denon gustokoak izan daitezkeen», deialdia egin du festak antolatzen bilerara joateko. Hilaren 17an izango da, asteartean, 19:00etan udaletxean. Egun eta toki berean, 20:00etan, herri kirolen gaia jorratuko dute.

VILLABONA ▶

Industrializazioa hizpide Aritzaren ikastaroan, etzi

Aritza kultur taldearen *Euskaldunon sustraiak eta memoria* ikastaroaren baitan, etzi, astelehena, beste hitzaldi bat izango dute Gurea aretoan, 19:00etan. Jose Maria Lorenzok emango du eta industrializazioaren garaia izango du hizpide.

VILLABONA ▶

Behar-Zanak erreboteko lehen partida du bihar

Aurtengo Euskal Herriko Errebote Txapelketako lehen partida jokatu du Villabonako Behar-Zana taldeak bihar. Norgehiagoka 11:00etan hasiko da Errebote plazan. Baigorriko Zaharrer Segi taldea izango dute aurrean billabonatarrek.

VILLABONA ▶

Euskal Girotze Egunak Fleming eskolan

Aste Santuko oporretatik bueltan Euskal Girotze Egunak prestatu dituzte Fleming eskolan, astelehenean eta asteartean. Horien artean *Bikote irakurleak* saioa antolatu dute: adin ezberdinetako ikasleak bikoteka ipuin bat irakurriko diote elkarri.

MUGIKORTASUNA ▶

Aiztondo bailara pedalei eraginez

Asteasuko eta Zizurkilgo udalek bi herrien arteko bidegorria egitea hitzartu dute Foru Aldundiarekin



Asteasutik Zizurkilera joango den bidegorriaren ibilbidea gorritz markatuta dago planoan. HITZA

ERREDAKZIOA

Asteasu eta Zizurkilgo udalek eta Foru Aldundiak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute bi herrien arteko bidegorria egiteko. Obrak ekainean hasiko dituztela aurreikusten dute eta urtearen amaierako bukatuko dituztela espero dute. Gipuzkoako Foru Aldundiak apirilaren zehar lanak burutzeko lehiaketa aterako du.

Bi udalak, Villabonakoarekin batera, aritu dira Foru Aldundiarekin harremanetan proiektua bultzatzeko. Orain egingo den bidegorria aurrerago Villabonarekin lotuko dute. Aiztondo bailaran zehar burutuko den ibilbidea Gipuzkoako Bidegorriak markari atxikiko zaio.

Bidegorriaren marrazketa Asteasu errekararen paraleluki

ZENBAIT DATU ▶

Aurrekontua. 1.358.142,95 euroko da, BEZ barne.

Luzera. 3.120 metroko ibilbidea izango da.

Ibilbidea. Asteasuko Obaba kalearen bukaeran hasiko da

doa, eta erreka horretaz gain beste hiru erreka (Burrusti, Matxintxulo eta Zabale) gurutzatuko ditu. Ondorioz lau pasabide egin beharko dira. Proiektu honekin, bidegorria asfaltatzen, drainatzeekin, atsedeen guneeekin eta beste hainbat ekintza osagarriekin hornituko dute.

Hitzarmenean zehazturikoan arabera, Foru Aldundiak bere gain hartzen du bidegorriaren lanak egiteko konpromisoa. Obrak amaitu ondoren bizikle-

ta Zizurkilgo Danena kirol elkartearen bukatuko da.

Ezaugarriak. Bidegorriak bizikleta karrilen sekzio tipoa errespetatuko du, hau da, 3 metroko zabalera. Zabalera

tari eta oinezkoentzako bide zatiaren mantentze lanak ere Aldundiak egingo ditu.

Ibilgailu motorduniek ez

Asteasu eta Zizurkilgo udalek bere gain hartzen dute proiektuak gauzatzeko behar diren baimenak lortzea eta lur, ondasun eta eskubideak eskuratzzea. Udalek, bidegorriaren proiektuak ukitutako lurren jabeekin hainbat bilera eduki ondoren, akordioetara iritsi

honek bi bizikleta edo bi oinezkoen gurutzaketa posible egingo du, lehenengo pasabidean ezik (Artzubi), honek 2 metroko zabalera izango du.

dira, lanak egikaritzeko beharrezkoak diren lurren erabilgarritasuna lortuaz.

Ibilbidea bakarrik txirindulariei eta oinezkoiei utziko diete erabiltzen, eta ez dute ibilgailu motordunek erabiliko. Horretarako zutikako seinaleak jarriko dituzte adieraziz bidegorriaren erabilpena bizikletariei eta oinezkoiei bakarrik mugatua izango dela. Bizikleta bide zatiaren titularitatea Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskuetan egingo da eta Gipuzkoako Bi-

zikleta Bideen Sarearen katalogoan sartuko da.

Bi udalerrietan bidegorriaren luzapena aurreikusten dute. Asteasun, Artzubitik kiroldegira arte, Asteasu Erreka inguratuz. Matxintxulotik Petasagastira joango den eta Foru Aldundiak egingo duen bidegorriarekin bat egingo duen zirkuito bat egitea ere aurreikusten dute. Bere erabilera arautua izango da oinezkoen, bizikletarien eta ibilgailu motordunen erabilera.

Zizurkilgo, bidegorria Asteasu errekararen ondotik Pasusenera iritsiko litzateke. Hortik, alde batetik, Ori ibaiaren ondotik Adunaruntz joango zen. Bestaldetik, Ubare auzoko obrekina batera, bidegorria egingo litzateke Villabonako Sacemeko industriaguneari lotuz.

hitza argazki lehiaketa

bidali oporretako argazkiak!

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Postaz: Argazki Lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZaren egoitzetara ekarri

ONARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info

Sari nagusia

BIDAIA paregabe bat zure neurria

2 lagunentzat 4 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Santanderren edo Errioxan

Bidaia Agentzia bidaide

Ernioeaba, 6-behea • 20150 Villabona
Tel.: 943 692 693
bidaide@gruposercom.com

ZOKZETA APARTAK

PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILA guztien artean HITZaren motxila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira

IKAZTEGIETA ▶

Elikaduraz ariko dira osteguneko hitzaldian

Hilaren 19an, hitzaldi bat izango da ikaztegiako liburutegian, 17:00etan, Kutxako Gizarte Ekintzak antolatuta. Gaia honakoa izango da: *Elikadura eta elikagaiak. Arriskurik gabeko elikadurarako jarraibidea*. Programa: janari sanoak, kontserbatzaileak, koloragarriak, pestizidak, eta abar. Janariaren toxikotasunaren ondoriozko infekzioak, nola sukaldatu eta jan modu osasuntsuan, elikadura orekatua osasun-iturri.

ALEGIA ▶

Bihar arte izango da Azpirozen erakusketa

Isabel Azpiroz donostiarren erakusketa dago Alegiko jubilatuen tabernan, baina azken asteburua da; izan ere, bihar izango da bisitatzeko azken eguna. Bertan, paisaiak eta erretratu pare bat daude, baita erosteko aukerarekin ere. Zizurkilan bizi den artistak, mementuz ez du beste leku ezagunen batean jartzeko asmorik.

ALTZO ▶

Enkarni Genuaren taldea txotxongiloekin

Zergatik bizi da Txanogorri-txoren amona basoan? antzezlan izango da Lizarbeko ezker aldeko gelan asteazkenean, 17:00etan. Kutxaren laguntzaz Udal Liburutegiak antolatuta du, eta Enkarni Genua Txotxongilo Taldearen lana izango da ikusi ahal izango dena. Xabi izeneko detektibe bat izango da eta txotxongiloekin batera ikerketa bat egiten hasiko da, erantzun batzuen bila.

ALEGIA ▶ GIZARTEA

«Pozik gaude baina errugabetasuna aldarrikatzen dugu»

Hitzarmena maiatzean sinatuko dute; hala, Pako Larrañaga presoak aurten Espainian jarraituko luke kondena betetzen

NEREA URBIZU

Pako Larrañaga, Filipinetako espetxe arrunt batean dagoen alegiar jatorriko semea, aurten urte bukaeran Espainiara estraditatzeko aukera izango duela ziurtatu dute familiakoek. EAJko Victor Bravok senatuan NBeko iazko hitzarmena zertan den galdetu zuenean, Miguel Angel Moratinos ministro espainiarrak «hitzarmena bidean» zegoela erantzun zuen, eta «maiatzaren 3an sinatuko» dela. Hitzarmen hau sinatu ondoren berrespena etorriko litzateke, «hemendik hiru bat hilabetera», Pako Larrañaga senideak esan duen bezala.

Presoaren osaba den Pako Larrañagak ilobaren egoeraren berri eman zuen: «Pako itxaropentsu dago azken berri honekin, baina beti esan duen bezala, errugabea da eta ez luke kartzelan inoiz egon behar, ez Filipinetan, ezta Espainian ere».

2006eko maiatzean, Filipinetako Gloria Macapagal lehendakariak ia 1.200 preso heriotz zigorrerik libratu zituen —barkamen pribilegioa aplikatu zien—, tartean Pako Larrañaga. Uztailen, berriz, Filipinetako gobernuak erantzun bat eman behar zion NBeko giza eskubideen komiteak bidalitako helegiteari, «baina ez du oraindik erantzunik eman». Helegite horretan, Larrañagari egindako epaiketa «barregariaren eta zentzugabearen ondoren» errepikatzea eskatu zen, «epaiketan 35 testiguz ez



Pako Larrañaga presoaren osaba alegiarra. N. LATABURU

HELEGITEA

«Helegitean presoaren lehen irtenbidea defendatzen da; askatasuna baldintzapean ematea»

baitezuten deklaratu, ezta Pakok berak ere, eta hori preso baten eskubideak urratzea da». Dena dela, «zaial ikusten dugu aukera hau ematea: deklaratu zuen horrek aurreko guztietan gezurra esan duela badio, bai, baina hori ez da emango».

ITXAROPENA

«Hitzarmena maiatzean sinatzen bada, Espainiara eramana eta kondena bertan beteko luke»

Helegitean itxaropena

Helegitean, besteen artean, presoaren lehenengo irtenbidea defendatzen da: Larrañagari askatasuna baldintzapean ematea, hain zuzen. «Abokatuak bide horretatik jotzea pentsatu du. Orain erantzun

KRONOLOGIA ▶

1997ko iraila. Pako Larrañaga preso hartzen dute.
Heriotz korridorea. Zigor hau bi urtez aplikatu zioten.
2006ko maiatza. Filipinetako Gloria Macapagal lehendakariak 1.200 presori barkamena mota bat aplikatu zien: heriotz korridoretik at geratzen da.
2006ko uztaila. Pako Larrañagaren abokatuak helegitea eskatu zion Filipinetako gobernuari, beste epaiketa bat egiteko, eta NBeko giza eskubide komitearen babesa izan zuen.
2007ko maiatza. Hitzarmena sinatuko dute.

posibleak hiru izango dira: epaiketa berria egiteko aukera ematea, Gloria Macapagalek barkamen osoa ematea», edo bestela protokolo politikoaren hitzarmena, hau da, Espainiara eramatea, eta kondena bertan betetzea. Azken aukera honek itxaropena eman die senitartekoei. «Hau gertatuz gero, Pakok kondena bertan beteko luke, eta (estatu espainiarrean dauden kartzela legeak ezagutzen ez badituz ere, kondena arinagoa izango litzatekeela, ziur; hasteko, bizitza guztirako kartzela zigorrak ez du izango, Espainian ez dagoelako».

Familiak «pozik eta pausu ona» izan dela esaten badu ere, presoaren aitak, Manuel Larrañagak adierazi zuen bezala, «semea Espainiara eramango dute, baina esku-burdirnekin, preso; Pako errugabea da».

Presoa ere itxaropentsu

Pako Larrañaga preso oraingo kartzelan lasaigo dagoela aitortu du. «Bertako kideek barkamena eska dezala esan diote, askatasunerako bidea erraztuko balio bezala, baina nire ilobak ez du hori egin nahi, bera errugabea delako: ez du gezurra den zerbaite esan behar».

DENOK apirilaren 4tik 22ra
SINATZERA!

PROZESUAREN ETA HAUTESKUNDE DEMOKRATIKOEN ALDE

**HERRIETAKO NOTARITZETAN
UDALETXETAKO IDAZKARITZETAN**

badator
euskal herri berria



www.euskalherriberria.info

AZPIEGITURAK ▶

N-1 errepideko zubian hamar zutabe berrituko dituzte

Gipuzkoako Foru Aldundiak Amenabar enpresaren esku utzi zituen lanak eta hormigoi kaltetua berritzeaz gain barneko burdinak ere aztertuko dituzte

ASIER IMAZ

Tolosa eta Ibarra artean dagoen zubian, gainetik N-1 a igarotzen den pasabidean, konponketa lanak egiten ari dira azken hilabeteetan. Gipuzkoako Foru Aldundiak Amenabar enpresaren esku utzi zituen errestaurazio lan hauek. Gaur egun hamahiru langile dabilta lan ezberdinak egiten, oraindik «denbora eskatuko» duen berriztatketan. Guztira 10 zutabe konponduko dituzte, honekin batera goratik pasatzen den errepidearen aldamenetan dauden hormigoizko ziurtasun hormak eta behetik ikusten den errepide azpia ere bai. Horretarako garabia erabiltzen ari dira, nahiz eta leku batzuetara garabi besoa iristea ezi-



Ibarra sarrerako zubian konpontze lanak aurrera doa. ASIER IMAZ

nezkoa den. Kasu hauetan aldamioak jarri behar izan dituzte, «beti ere ziurtasuna bermaturik lan egiten dugu».

«Lehen aldia» da berriztatzen lanak egiten dituztela Ibarra sarreran dagoen zubian. Hormigoia egiteko bultzatu ditu lanak, zartatzen hasia zegoen lekuetan, lehenbizi pikatu egin dute, ondoren barnean daraman burdinaren egoera ikusteko. «Hormigoia haustean, ura sartzen da barrura eta orduan burdina erdoildu egiten da. Erdoil hori kendu egin behar zaio eta ondoren pintura bat ematen zaio irau dezan. Azkenik hormigoi berria, iraunkorra, jartzen zaio». Ondoren itxura kontuak etorriko dira, hau da, kolerezatatu egingo omen dituzte.

POLITIKA ▶

Firmak Gaztelu, Belauntza eta Berastegin

Ezker abertzaleak «demokrata guztie» sinatzeko eskatu diete. Berastegi eta Belauntza horretarako aukera jarri dutela jakinarazi dute. Gaztelu eta ezker abertzaleko herri plataformak aterako ez diren lekuetan, Batzar Nagusietarako Tolosako notari-tzan sinatu beharko dute. Berastegin lanegunetan 9:00etatik 13:30era sinatu ahal izango da Udaletxean. Belauntza berriz ostitalean, larunbatean eta astelehenean izango da aukera.

IBARRA ▶

Ibarrak 14:30ean jokatu du gaur Kantabrian

Gaur Ibarra FSK Kantabrian jokatu du 14:30ean Ansar FS talde igo berriaren aurka. Mailan lehen urtea duten arren, lehen itzuli ona egin zuten nahiz eta bigarrenaren gora beherak izan, honen ondorioz talde zaila izango dela jakinarazi dute Ibarrakoek. Jubenilek eta kadeteek asteburu honetan atsendaldia edukiko dute.

IBARRA ▶ ANTZERKIA



Haurrentzako antzerkia Kultur Etxean

A. Imaz ▶ *Liburuzainaren baiketa* antzezlanaren eskaini zuen atzo Xoxipe taldeak. Gerturatu ziren haur eta gurasoak lekuko zirela, Rufus Kiski eta Rufus Kaska gaiztoek Ernestina Liburuzaina bahitzen saiatu ziren. Diru laguntza herriko alkateari eskatu zioten, baina honek lanpeturik zegoela esanez, itxaroteko eskatu zien. Telefono deia zain zeudela liburutegiko liburu mundua ezagutu zuten kantu, jolas eta oihuen artean. ASIER IMAZ

ELDUAIN ▶

Gaur jokatu du Zeberio II.ak erremonte finala

Gaur arratsaldean jokatu da erremonteko Patxaran Baines Masterraren finaleko bi partiduetatik lehenengoa. Iruñeko Labrit frontoi laburrean lehiatuko da Zeberio II.a Agirrezabala lagun due-la, Uterga - Urrutia bikotearen aurka 16:30ean hasiko den jaialdian. Finala jaialdiko bigarren partida izango da eta ohi bezala 40 tantutara jokatu da.

urteurrena ▶



Imanol Sarasola Olaizola

2006ko apirilaren 13an hil zen,
36 urte zituela

Matte, matte zattugu,
ilargiraino eta buelta
matte zattugu.

Idurre, June, Malen eta Anduiz'ko zure familia

Apirilak 15, BIHAR, eguerdiko HAMABIETAN, Oiarzungo parrokian
Apirilak 22an, IGANDEA, eguerdiko HAMABIETAN, Bidebietako parrokian

OIARTZUNEN, 2007ko apirilaren 14an



HILBERRIAK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPIZKOAN
120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

LEITZA ▶ KROSA

Herriko Krosaren 29. edizioa bihar, zenbait aldaketekin

Haur kategorian mutilek 5.000 metro egin ordez 2.500 metro egingo dituzte, eta kadeteak bakarrik irtengo dira



Leitzako krosa, lehengo urtean. JAIONE ASTIBIA

NAIARA GARCIA

Urtero bezala, udaberri partean krosa antolatzen du Aurrera kirol elkarteak, eta aurten, apirilaren 15a izan da antolatzaileek horretarako aukeratu duten eguna, hau da, bihar.

Kros antolatzaileek adierazi duten bezala, «alde zurretik zenbat pertsonak parte hartuko duten jakitea zaila da», izan ere, izen-emateak goizean egiten baitituzte, lasterketa hasi baino lehen. Umeenak, berriz, aurretik egiten dituzte, eskolan. Aurten dortsalak izan ordez, kartoi meheak eramango dituzten antolatzaileek jakitera eman dutenez, euririk egiten badu, hauek busti ez daitez, plastikozko zorroak banatu dituzte. «Kolare ezberdinetako kartoi meheak eskolara eramaten ditugu eta hauetan, parte hartu nahi dutenek, beraien izena idazten dute. Normalean ume asko apuntatzen dira, eta goizean bertan inskripzioak egiteko nahiko gaizki ibiltzen gara». Igandean bertan, gainontzekoek izen-emateak egiteko orduan 6 euro ordaindu beharko dituzte, eta Aurrerako bazkideak direnek, 4 euro.

Aurten edizioak aurreko urteekiko ez du aldaketa nabarmenik izanen. «Haur kategorian lehenago neskek 2.500 metro egiten zituzten, eta mutilek, 5.000. Jendeari mutilek bi

biraregitea asko iruditzen zitzaien, aurten bai mutilek, bai neskek, 2.500 metro egingo dituzte». Honetaz gain, irteera orduarekin zerkusia izanen du beste aldaketak. «Lehengo urtean kadeteak sartzen ziren 11:15ean junior, senior eta beteranoekin batera. Aurten kadeteak 10:45ean jarri ditugu, bestela adin ezberdinetako jende asko aldi berean aterata eta nahasi egiten ziren».

Han eta hemen zabalduz

2006. urtean 425 parte-hartzaile izan ziren Leitzako krosan. «Aurreko urteetan partaidetza jaitsi egin zen, eta lehengo urtean gora egin zuen. Aurten ere jende askok deitu digu».

Parte-hartzaile ugari biltzeko ezinbestekoa da han eta hemen Leitzako krosa ospatuko dela jakinaraztea, eta horretarako hainbat lekutan kartelak jarri dituzte. «Adibidez, Maimurko Joxerrak kartel asko eraman ditu Gipuzkoa aldera eta gero Aurrerako jokalariek

KROSA ▶

IRTEERA ORDUTEGIAK

10:15. Benjaminak.

10:30. Hasi berriak - Haur kategoria.

10:45. Kadeteak.

11:15. Junior - Senior - Beteranoak.

ere Iruña aldean jarri dituzte. Honetaz gain, guk kontratatzen dugun epaileak webgune bat dauka eta bertan Leitzako krosaren inguruko informazioa ateratzen da».

Sariak

Sariei dagokienez, asko dira igandean krosa amaitu ostean banatuko direnak. Sarien banaketa 13:00etan hasiko da eta antolatzaileek diotenez, «sari banaketak dezente iraun ohi du». Hasteko, benjamin, hasiberri eta haur kategoriako partaide guztiei helmugara iristearekin batera domina ematen zaie. Edozein lasterketatan kategorian bakoitzean eman ohi dituzten ohiko sariez gain (iristen diren lehenengo hiruen-tzat, eta lehenengo leitzararentzat), sari berezirik ere emanen dute. Taldeka kategorian ezberdinetan denbora baten azpitik lasterketa amaitzen dutenek, esaterako, axuri bana jasoko dute, eta Andres Perez-en marka hobetzen duenak (10 kilometro, 29 minutu eta 49 segundotan) 160 euro jasoko ditu. Laguntza eman duten komertzioen artean ere bi pertsonentzako afaria zozketatuko da.

Krosa Leitzarra tabernatik aterako da eta plazan amaituko da urtero bezala eta 12:30ean plazan hamaiketako emanen dute.

VILLABONA ▶ HALTEROFILIA



Danena-Olaederra taldea, Madrilen. HITZA

Asier Gallegok urrea lortu du Madrilen

Danena-Olaederra taldetik 6 gaztek parte hartu dute Teknika Eskolarren Txapelketan

ERREDAKZIOA

Madrilen jokatu berri den Espainiako Teknika Eskolarren Txapelketan Danena-Olaederra Halterofilia taldeko Asier Gallegok Brontzea lortu du, bere mailan, hau da, 1996an jaiotako hasi berrietan.

Gallegoz gain, Villabona eta Zizurkilgo talde honetako beste 5 partaidek parte hartu zuten. Bere maila beran Igor Galludok zortzigarren postua lortu zuen, eta Isam Eloikilik, bederatzigarrena.

1995ean jaiotako hasi be-

rrietan Unai Calvo zazpigarren gelditu zen. 1994. urteko haur-kategorian, berriz, Kell Yam Quintanak zortzigarren postua eskuratu zuen eta Adriain Sasiainek, hamargarrena.

Danena-Olaederra taldeko arduradunek azaldu duten bezala, «epaileen puntuazioen erabakiek ez zituzten bate-lagundu. Gehienbat Kellyamenen kasuan oso altxaldi ona egin zuen. Halere, teknikaren balorapena oso zaila da, entrenatzaile bakoitzak bere ikuspuntua baitu».

LEITZA ▶

Aurrera, bihar, Etxauriko Pilota Txapelketan

Asteburuan Aurrera pilota eskolako pilotariak jokatuko dituzten partiden barruan, bihar arratsaldean Mikel Iriarte eta Aimar Lansalot gazteek jokatuko dute, Etxaurin, 18:30ean.

LEITZA ▶

Karaoke Festa Gaztetxean, gaur, goizaldean

Gazte Asanbladak Karaoke Festa antolatu du. Jaialdia gaur gauean egingo dute, eta horretarako, Gaztetxea 06:00ak arte irekia egongo da. Halere karaokea 04:00etan hasiko da.

ARAMBURU
Alokatzeko (Tolosa).
Pisua San Frantzisko kalean.
Alokatzeko (Tolosa).
Garajeak. Araba etorbidean irekia eta lurren itxia.
Salgai (Tolosa).
Pisua "La Estrella" eraikinean.
Salgai (Tolosa). Lokalak Agintari kalean eta Kale Nagusian.
Salgai. Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak Ibarren.
Salgai (Tolosa).
Garajeak. Leidor azpian.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK
Jogurta
Mahala baserría - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Anoeta. No Relax taldeak kontzertua eskainiko du Anoetako Gaztehean. No Relax orain urte batzuk utzitako Ska-P taldeko hainbat musikariek eginiko proiektu berria da eta mundu osoan barrena bira bat egiten ari dira.

Ibarra. Bizi Nahi elkarteak iteera antolatuta du gaurko Xabiererra: Las Campanas bodega, Sos del Rey Catolico, bazkaria Zangozan. Izen-ematea, elkartearen 25 eurotan (27 euro ez bazkideek).

Tolosa. Aurten Kazkabarra Taldearen 25. urteurrena da, hori dela eta, urte hauetan taldearekin harremana izan dutenentzat afaria antolatuta dute apirilaren 21erako. Hala, txartelak eskuragai dira Ikatza, Orbela eta Mescalesn.

Tolosa. Harizpe jubilatuta eta pentsionista elkarteak Saloura oporraldia antolatuta du maiatzaren 27tik ekainaren 19era. Pentsio osoa hiru izarreko hotelean 381 euro (ez bazkideek 387). Informazioa egoitzan.

Villabona. EHNA egiteko aukera izango dute billabonatarrek kultur etxean. 11:00etatik 13:00etara izango da ordutegia. Ohi bezala, hiru argazki, errolda agria eta 15 euro eman behar dituzte.

ZINEMA

Tolosa. *El velo pintado* filma (drama) emango dute asteburu honetan Leidor aretoan: gaur 19:30ean eta 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi 20:30etik aurrera.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Lekunberri. Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.

IRRATIA

Txolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Hitza* hegana.
Goiko irrateria (107.0 FM)
12:00. *korrera*.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Paiaisai ederrak gailurretatik

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Aste Santuko oporraldia igarotzeko mendia aukeratu duenik ere izan da gurean; hona hemen bi adibide

PIRINIOAK ▶

Koldo Seara (Villabona).
Koldo Seara Pirinioak aldera joan da egunotan, argazki kamera ahaztu gabe. Argazki eder hau bidali digu hango txokoetatik. «Aragoiko Pirinioetan ikuspegi hauek ikusteagatik hotza igarotzeak merezi zuen. Paraje ederrak daude nonahi», azaldu du Koldo Seara billabonatarrek.



PETRECHEMA ▶

Joseba Saralegi.
Joseba Saralegi ere mendia aukeratu du oporraldi honetan. Berez ederra den paisaia batean atera du argazkia Josebak, baina berezituna batekin. Izan ere, pioleta bat ere ageri da lehen planoan, atzealdean Petrechema mendi ikusgarriaren zati bat ikusten dela. «Berezia irudituta zitzaidan argazkia», azaldu zuen Josebak argazkia erretrakzioa ekarri zuenean.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Miren Aranalde Ramiro (Berastegi). Gaur 3 urte. Zorionak etxekoan partetik.



URTE ASKOAN
Asier Pildain (Tolosa). Atzo 4 urte. Zorionak familiararen partetik.



Gaur ezkontzen zaizkigun Imanol eta Maiderrri zorionak familiararen partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza agurren tartea
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...